

# terrorismoa eta euskara

JOXE AZURMENDI

Terrorismoak eta euskaren egoerak bata-bestearekin badutela zerikusirik, esaten nuen, begi borobil-borobil haundi eskeptikoak jartzen zizkidan jende askok. Eta bakearen bidea, besteak beste, Euskal Herrian euskara normalizatzetik pasatzen zela, esaten banuen, euskaltzalearen xantajea egin nahia iruditzen zitzaien: jendearen preokupazio haundi bat euskaren alde tajada ateratzeko trukoia. Baina egia da, nik ez dut sinesten bakean euskararen normalizapena gabe.

Orain kanpotik esaten digu horixe norbaitek, eta ez nornahik: Tovarek, ik. **Mitología e ideología sobre la lengua vasca. 1980.**

## Bakea eta politika linguistikoa

«Pero la actual crisis, desgraciadamente sangrienta crisis, que sacude a los vascos, es una crisis política, mas también lingüística... El País Vasco, tan industrializado, tan atractivo como ha sido para inmigrantes, ha llegado a una crisis de identidad».

«(...)» El camino de la paz en las provincias vascas y en España pasa por la política, y, según se puede ver en este libro, por la política lingüística».

«A los nostálgicos del franquismo este libro les puede enseñar que el planteamiento del problema lingüístico y político de los vascos no es de ahora, y que el largo silencio impuesto hasta que surgió ETA no resolvió nada, sino que lo enconó todo».

## Gerra linguistikoak

Gerra linguistikorik ez dugula nahi, esan da Parlamentuan. Egia esan, beste inolakorik ere ez dugu nahi. Baina hemen, nahi dugun ala ez, gerrarik ez zaigu falta eta gerra horiek linguistikoak ere badira.

Lehenengo, gerra linguistikoaren gogorra ez da batere gutxietsi behar. Horiek ez dira lau akademikoren arteko paper-gerrak izaten. Noraino iritsi daitezkeen, Belgikak erakusten du, Estatuaren esistentzia bera behin baino gehiagotan jarri bait dute arrisku gorrian.

Ez zait batere gustatzen, esaten dudana hau rebantxismo baten modura uletzea, dena sinplifikatuz. Askok horixe egiten du: hainbeste denboraz zapaldu da euskara, ze azkenean zapaldukoak errebolatu egin bait dira zapaltzaileen aurka... Esplikabide psikologiko horrek ez dakit zenbat balioko duen, nik neuk bestela ulertzen dut arrazoi hau.

## Komunitate hautsia

Euskalduna ez da egon zapaldua eskolan bakarrik (eta prentsan, etab.) ez da egon zapaldua bakarrik ere. Batez ere marjinatuta egon da, desintegratuta. Eta, euskaldun bezala, integratzerik ere ez zeukan: medikuarengana joan, bileta bat ateratzera joan trenerako, testamentua egin behar notari baten aurrean, beti aurkitzen zen mundu arrotz eta etsai, beldurgarri, baten begiz-begi.

Baina biolentziara ez dute jo euskaldunek bakarrik (euskardunek). Besteak funtsean berdinberdin bait daude: ni integraturik ez banago, nirekin bizi dena ere desintegraturik aurkitzen da. Euskadin, euskaraz jakin ez ziren euskaldun sentitzen dena behintzat, jatorriz euskalduna bezain desintegraturik dago komunitatean. Gizarte hautsi batetan bizi da, bera ongi samar bizi arren, pertsonalki. Eta desintegrazio komunitari honek ezin ekar lezake bizitza sozial harmoniatsu, baketsurik. Nahitaez biolentzia dakar.